

JUILLET
2021


N ° 19

CAMBO LES BAINS

INFO

LE BULLETIN DE LA VILLE DE CAMBO-LES-BAINS

KANBO
BERRIAK



MOBILITÉS : UN LARGE CHOIX DE MOYENS À CAMBO
MUGIKORTASUNAK : AHALBIDE ANDANA BAT KANBON

FINANCES : LES GRANDS ÉQUILIBRES DU BUDGET 2021
FINANTZAK : 2021-EKO EZAGUARRI NAGUSIAK

Chers Camboars,



Christian DEVÈZE
Maire de Cambo-les-Bains

Nous voulons tous croire, alors que l'été est là, au vrai bout du tunnel sanitaire que nous venons de traverser. La vaccination va bon train, et je me félicite d'ailleurs que la commune de Cambo y ait pris sa part, à travers en particulier un grand nombre d'initiatives désintéressées et généreuses.

Les pages consacrées au budget de la ville dans ce bulletin municipal témoignent des conséquences de la crise dont nous sortons, et avec, fort heureusement, des signes de reprise déjà palpables jusque dans notre centre-bourg.

Mais, ne nous leurrions pas, la pandémie COVID laissera des traces durables dans de nombreux foyers de Cambo. Séquelles physiques pour certains, psychologiques pour d'autres, difficultés économiques, pour d'autres encore. D'où un exercice comptable que j'ai voulu responsable sans le soumettre à une quelconque austérité.

Comme toujours dans l'histoire des hommes, une sortie de crise telle que celle que nous avons connue, voit se lever des envies de retrouvailles et de fête qu'il faudra pourtant encore soumettre à des contraintes de gestes barrière, même si ceux-ci seront, je l'espère, progressivement allégés. À Cambo, plus qu'ailleurs, on connaît le prix d'une santé partagée par le plus grand nombre. Et je sais pouvoir compter sur l'esprit de responsabilité de chacun.

Notre "C'est à Cambo" détaille toutefois de nombreux rendez-vous qui vont nous rendre le sourire, tels que : la Course des canards, ou encore le IVème salon du Livre. Sur le terrain culturel, on peut aussi se réjouir de l'acquisition des tableaux d'Hélène Dufau. Un vrai plus pour l'enrichissement de notre patrimoine pictural déjà très brillant.

En matière d'Urbanisme, j'ai tenu à ce qu'un article soit consacré à l'aménagement de notre cité.

La page associative, elle, met en exergue l'activité remarquable de la Croix-Rouge de Cambo. Sans bruit, mais au quotidien, elle est au cœur de très nombreuses solidarités dans notre commune et bien au-delà.

Plus sensible que jamais, le dossier des mobilités où vous pourrez noter le détail des horaires qui sera relayé par tous nos supports électroniques, afin que nos déplacements gagnent en fluidité et en cohérence avec une optimisation grandissante des offres de transport public de notre territoire.

Charge à nous d'approcher l'utilisation de la voiture avec raison ! Je veux enfin saluer le coup de projecteur porté par notre magazine sur la famille Fagalde, indissociable de l'histoire contemporaine de Cambo.

Il me reste enfin à vous souhaiter un bon été, traversé par une liberté individuelle et collective retrouvée. Je ne perds pas pour autant de vue toutes celles et tous ceux de nos concitoyens que la période pandémique a beaucoup plus touchés dans leurs corps et leurs esprits qu'il n'y paraît parfois.

Bonnes vacances aux plus chanceux aussi, à Cambo bien sûr !

Bien fidèlement

Kanboar maiteak,

Uda hor da, eta denek sinetsi nahi dugu iragan berri dugun osagarri-krisiaren zilo beltzetik ateratzeko bidean garela. Txertaketa laster aitzinatzen ari da, eta kontent naiz Kanboko herriak ere horretan parte hartu izateaz, partikularki ekimen eskuzabal anitzen bidez. Herri aldizkari honetan herriko aurrekontuari eskaini orriek argiki erakusten dute bururatzen ari den krisiarengan ondorioak zein izan diren, eta, beharrik, erakusten dituzte ere gure herri barneraino senti daitezkeen ekonomiaren suspertzearen zenbait zeinu.

Baina, ez dezagun gure burua engaina, COVID pandemiak herexa iraunkorrak utziko ditu Kanboko etxe anitzetan. Ondorio fisikoak batzuendako, psikologikoak bertzeendako eta zaitasun ekonomikoak bertze batzuendako. Horregatik nahi izan dut arduraz eta zorroztasun gehiegirik gabe jokatu finantzak aldia finkatzean.

Gizakien historian ohi bezala, krisi batetik ateratzeak berriz elkartzeko eta besta egiteko tirria sortzen du; baina, oraino, prebentzio neurriak hartuko beharko dira, nahiz eta agian pixkanaka arinduko diren. Kanbon, bertze nehon baino gehiago, badakigu zer den pagatu beharreko prezioa jende gehienak osagarri onean izateko. Eta badakit herritar bakoitzaren erantzukizun izpirituan kontatzen ahal dudala.

Halere, "Kanbon gertatzen da" orrialdeetan irria nagusitzeko zenbait hitzordu aipatzen dira, hala nola Ahate Lasterketa edo IV. Liburu Azoka.

Kulturari dagokionez, bozkariatzen ahal gara Hélène Dufau artistaren margolanak erosi izanaz. Gure margolaritza-ondarea aberasteko zinezko egintza baliosa izan da.

Hirigintzaren arloan, gure herriaren antolamenduari buruzko artikulu luze bat idatzi nahi izan dut.

Elkarrean orrian, Kanboko Gurutze Gorriaren lan bikaina aipatzen da. Azantzarik gabe, baina egun guziez, elkartasun egintza anitz sustatzen ditu gure herrian eta haratago.

Bestalde, mugikortasunen gaia sekula baino minberagoa da. Gure euskarri elektroniko guzien bidez jakinaraziko diren ordutegien xehetasunak ikusiko dituzue, gure joan-otorriek aruntasuna eta koherentzia izan dezaten eta gure lurraldeko garraio publikoaren eskaintzak gero eta hobeki optimiza daitezten. Gure ardura da oraindanik autoaren erabilera mugatzea!

Azkenik, Fagalde familiari buruz egin artikulua goretsi nahi nuke, familia hura Kanboren historia garaikidetik ezin bereizia baita.

Bururatzeko, denei uda ona desiratzen dizuet. Askatasun individual eta kolektibo berriaz balia zaitezte. Hala ere, ez ditut ahanzen pandemia gogor honek gorputzean eta gogoan uste baino gehiago kolpatzu dituen gure herritar guziak.

Bakantza on xantzadunei ere; baina Kanbon, bistean da!

Leialki

Christian DEVÈZE
Maire de Cambo-les-Bains
Kanboko auzapeza




ENRICHISSEMENT du patrimoine communal

Le 23 avril dernier, lors d'une vente aux enchères à Saint-Jean-de-Luz, la ville de Cambo a pu acquérir deux tableaux de l'artiste Hélène Dufau, un portrait de Maurice Rostand, fils d'Edmond et un autoportrait de l'artiste.

Hélène Dufau, artiste très bien cotée au début du XX^e siècle, est la plus grande décoratrice de la villa Arnaga, notamment de la bibliothèque et de l'escalier principal avec trois médaillons de femmes ainsi que des portraits de Rosemonde Gérard et Maurice Rostand.

Ces tableaux seront visibles très prochainement au sein de l'exposition permanente d'Arnaga.



HERRIKO ONDAREAREN ABERASTEA

Joan den apirilaren 23an, Donibane Lohizunen antolatu zen enkanteko saltze batean, Kanboko herriak Hélène Dufau artistaren bi margolan erosi ahal izan zituen: lehena, Maurice Rostand Edmonden semearen potreta, Arnagako lorategietan; bigarrena, artistaren autopotreta bat.

XX. mendearren hastapenean arras ongi balioztatua zen Hélène Dufau artista. Arnaga etxearen apaintzailerik handiena da, batez ere liburutegian eta eskailera nagusian, non hark margotu hiru emazte medailoi eta Rosemonde Gérard eta Maurice Rostandean potretak baitira.

Berrikita erosi margolan horiek laster ikusiko dira Arnagako erakusketa iraunkorrean.



SIGNALÉTIQUE urbaine

En 2019, une étude sur la signalétique indicative locale pilotée par une commission municipale avait été réalisée avec le cabinet bayonnais PBO Design.

Le projet prévoyait de compléter et d'harmoniser les panneaux d'information locale qui guident vers les principaux équipements, commerces ou monuments au sein de la ville.

L'installation des panneaux réalisés par l'entreprise Signature, entamée en décembre 2020, s'est poursuivie en 2021 par la pose de la signalétique des différents parkings et s'est achevée très dernièrement par l'implantation des plans de la ville.

HERRIKO SEINALEAK

2019an, Baionako PBO Design enpresarekin, herriko batzorde batek gidatu herriko seinaleei buruzko ikerketa bat egin zen.

Hala, herriko ekipamendu, saltegi edo monumentu nagusietara bideratzent duten tokiko informazio panelak osatu eta harmonizatu nahi ziren.

Signature enpresak egin zituen panelak. Hauen instalazioa 2020ko abenduan hasi zen. Gero, 2021 hastapenean, aparkalekuetako seinaleak ezarri ziren. Azkenik, berrikita, herriko planoak ezarri dira.

Développement durable

Le retour des beaux jours... et des mauvaises herbes.

Vous vous rappelez que nous n'avons plus le droit d'utiliser certains produits chimiques pour détruire les mauvaises herbes qui poussent sur le trottoir devant chez vous. Les services municipaux font tout pour maintenir la qualité visuelle de votre environnement avec cette contrainte forte.

N'hésitez pas, comme le font déjà de nombreux kanboars, à désherber mécaniquement les quelques mètres carrés de trottoirs qu'il y a chez vous. **La nature vous en sera reconnaissante !**



GARAPEN IRAUNKORRA

Aro ederra dugu berriz... eta belar txarrak hor dira ere.

Oroit ez dugula zenbait produkto kimiko erabiltzeko eskubiderik, zuen etxe aitzineko oinbidean pusatzen diren belar txarren suntsitzeko. Hertsadura hau kontuan harturik, herriko zerbitzuek zazpi eginahalak egiten dituzte bazterren eder eta garbi atxikitzeo. Nahi baduzu, bertze kanboar anitzek egiten duten bezala, zure etxe aitzineko oinbidean belar tzarrak mekanikoki kentzen ahal dituzu. **Naturak eskertuko dizu!**

La course de canards



Cette course caritative en faveur des enfants malades aura lieu sur la Nive le dimanche 1^{er} août 2021 à 16h. Restauration rapide et Animations prévues au Jardin Public du Bas-Cambo dès 12h. Billets en vente à l'Office de Tourisme - magasins partenaires et sur Internet cambo.adopteuncanard.com ou duckrace64.com.



"Duck Race" edo Errobiko ahate lasterketa 2021eko abuztuaren 1ean, igandean, 16:00etan antolatuko da. Jan-lasterreko ostalaritza eta animazioak izanen dira Kanbo Behereko lorategi publikoa, 12:00etatik goiti. Sartzeak salgai dira Turismo Bulegoan, saltegi partaideetan eta Interneten: cambo.adopteuncanard.com **edo** duckrace64.com



Pour être toujours connecté à l'actualité de Cambo, téléchargez l'application "PanneauPocket" sur votre smartphone et choisissez "Cambo" !

Kanboko berrieri konektatua segitzeko, telekarga ezazue "PanneauPocket" aplikazioa zuen smartphonean eta Kanbo hautatu.

Connaissez-vous notre liste de diffusion ?

Si vous souhaitez recevoir tous les informations (Animations, expositions, spectacles, infos officielles...) de votre commune, inscrivez vous sur notre liste de diffusion.

Déjà 1000 inscrits !

Rendez-vous sur notre site : www.cambolesbains.fr

Ezagutzen duzu gure posta-zerrenda?

Zure herriko informazio guziak (animazioak, erakusketak, ikuskizunak, informazio ofizialak...) errezipitu nahi badituzu, eman izena gure posta-zerrendan. Jadaneko 1000 jendek izena eman dute!

Joan gure webgunera: www.cambolesbains.fr, eta izena eman harrera-orriaren beherean.

AMÉNAGEMENT du terrain OUSSIMENDIA



Le programme de logements d'Oussimendia, derrière la salle de sport, viendra compléter notre offre en matière de logements libres et logements sociaux.



Porté par la société In-Sitom, ce projet a fait l'objet d'une attention particulière sur:

- son intégration paysagère qui, s'il conduit à une réduction de l'espace boisé, comprendra la création d'un îlot central boisé, la plantation d'arbres en périphérie de l'opération avec une volonté de recréer des écrins boisés conséquents typiques de notre patrimoine camboard
- la desserte de cette opération pour réduire le flot de véhicules sur la route d'Oyamburua. A ce titre, une voie sera créée pour permettre la sortie sur le giratoire proche de la caserne des pompiers.

Ce projet accueillera 110 logements dont 50 % de logements locatifs sociaux portés par l'office 64. Édifié autour d'une place centrale, ce projet comportera 5 bâtiments collectifs dont 3 à



vocation sociale et 5 constructions individuelles qui seront proposées en vente "VEFA" (vente en l'état futur d'achèvement) sur des parcelles d'une superficie moyenne de l'ordre de 370 m². Le parti architectural reprend les codes architecturaux de pays basque avec des façades intégrant des pignons avec éléments de charpente en bois, colombages et habillage des certaines parties en pierre. Des terrasses viendront rythmer les volumes et compléter ainsi agréablement les lieux de vie.



Le programme comprendra :

- 6 logements T1 bis
- 43 logements en T2 dont 27 sociaux
- 40 logements en T3 dont 14 sociaux
- 31 logements en T4 dont 14 sociaux et 5 villas

Les photos 3D, ci-contre, simulant l'intégration de ce projet vous donnent un aperçu de la physionomie future de cette opération.

USIMENDIKO LURREN ANTOLAKETA

Kirolegiaren gibelean dagoen Usimendiko bizitegi programak osatuko du gure bizitegi libreen eta sozialen eskaintza. In-Sitom sozietateak gidatzen du projektua, eta arta berezia eskaini die ondoko puntuei:

- Projektua paisaian integratzea. Oihanari eremua kenduko badio ere, erdigune oihantsu bat sortuko da eta zuhaitzak landatuko dira higiezin operazioaren inguruan. Xeeda da Kanboko ondarearen marka diren berdegune oihantsuak birtsorzea.
- Higiezin operazio honetarako garraio zerbitzua segurtatzea, Oihanburuko errepidean ibilgailuen kopuruak murrizteko. Horregatik, bide bat sortuko da suhiltzaileen kasernatik hurbil den biribilgunean atera ahal izateko.

Projektu honetan 110 bizitegi eginen dira, eta haietarik % 50 edo erdia Office 64 erakundeak sustatu alokairu sozialeko bizitegiak izanen dira. Projektua erdiko plaza baten inguruan eraikido, 5 eraikin kolektibo izanen dira –haietan 3 sozialak– eta 5 etxe izanen dira, zeinak "VEFA" gisa ezarriko baitira salgai (planoen araberako salmenta) eta 370 m² inguruko bana besteko lurreko azalera izanen baitute.

Euskal Herriko arkitektura kodeak errespetatzeko hautua egin da, hots, eraikinen aitzindegia-gainetan zurezko egiturak, zurbeso agerikoak eta parte batzuetan harri apaindurak. Terrazak izanen dira ere, bolumen jokoak sortzeko. Hola, bizi lekuak arras atseginak izanen dira.

Programak honako hauek biltzen ditu:

- 6 T1 bis bizitegi
- 43 T2 bizitegi, haietan 27 bizitegi sozial
- 40 T3 bizitegi, haietan 14 bizitegi sozial
- 31 T4 bizitegi, haietan 14 bizitegi sozial eta 5 etxe

Behereko 3D argazkiek projektu honen integrazioa simulatzen dute eta etorkizuneko operazio honen itxuraren berri ematen dute.



Des bénévoles engagés dans l'action sociale

C'est au cœur du magnifique parc Saint Joseph qu'est établie la Croix-Rouge, en plein centre de Cambo.

L'antenne camboarde est rattachée à la Croix-Rouge de Bayonne qui en assure la gestion.

Les membres, adhérents de la Croix-Rouge, sont tous bénévoles et autonomes pour l'organisation et le fonctionnement de leur antenne.

Ils se sont répartis les tâches entre l'activité sociale sous forme d'aide alimentaire d'urgence - préparation et distribution de colis alimentaires - l'activité commerciale solidaire à la "Vestiboutique".

Les colis alimentaires sont exclusivement réservés aux bénéficiaires figurant sur une liste établie par les assistantes sociales et les C.C.A.S. locaux et sont adaptés à la composition des foyers.

Tous les trois mois, la situation des bénéficiaires est étudiée en vue d'un renouvellement pour pouvoir prétendre à un colis alimentaire tous les quinze jours.

L'approvisionnement est constitué de denrées livrées par la Banque alimentaire ou achetés localement.

Par contre, la "Vestiboutique" est ouverte à tous.

Les vêtements et les objets récupérés sont vendus à des prix modiques après avoir été triés par les membres bénévoles.

Le projet du nouveau local de la Croix-Rouge à Cambo concernera essentiellement l'activité sociale d'aide alimentaire : il y aura plus d'espace pour le stockage des denrées et la préparation des colis.

Aussi, il est important de veiller à ne déposer que des vêtements de saison car les capacités de stockage à la "Vestiboutique" sont restreintes pour privilégier les espaces d'exposition et de vente.

La solidarité est l'affaire de tous : les membres bénévoles qui donnent de leur temps et de leur énergie, les donateurs de fonds ou de vêtements et objets et les clients de la "Vestiboutique" qui donnent



une seconde vie aux articles en contribuant financièrement à l'équilibre d'un système dont nous pouvons tous avoir besoin un jour ou l'autre, en fonction des aléas économiques ou d'accidents de la vie.

Comme le rappelle la campagne de communication actuelle, la Croix-Rouge intervient lors des crises partout dans le monde mais aussi chaque jour en bas de chez nous.

■ Quelques données chiffrées

- 15 membres bénévoles à l'antenne de Cambo
- Zone de compétence sur 4 communes (Cambo, Espelette, Itxassou et Louhossoa)
- 80 à 90 colis par quinzaine
- Environ 160 personnes concernées

■ Les ressources


- Subventions des communes et des C.C.A.S.
- Livraisons de la Banque alimentaire
- Dons financiers reçus en tant qu'association d'utilité publique
- Dons de vêtements et objets tels que vaisselle, éléments de décoration ou culturels

■ Informations pratiques

- Horaires de la "Vestiboutique" : mercredi et vendredi 10h-12h et 15h-18h
- Distribution des colis alimentaires : 2 jeudis par mois de 15h à 16h30
- Dépot des vêtements et objets aux heures d'ouverture de la "Vestiboutique"
- Tél.05 59 03 23 92 / 06 63 26 41 05
- Messagerie et site internet : croix.rouge-cambo@orange.fr



BEÑAT GASTIGARD n'est plus



Beñat nous a quittés discrètement, un peu comme il a vécu.

Tous les dossiers dont il a eu la responsabilité en mairie, il leur aura consacré une belle énergie.

Pour l'avoir côtoyé comme élue, mais aussi dans la vie de Cambo, je peux témoigner de sa passion discrète mais infatigable pour notre commune.

Sans bruit, mais avec une ténacité qui forçait l'admiration, il a construit sa maison - "Gereziak" - où il vivait avec sa sœur. Oui Beñat était un bâtisseur...

Il était l'homme des plaisirs simples et sains. Il savait profiter de ce que la vie pouvait offrir d'opportunités de partage avec les proches et les amis. La belote était pour lui un exutoire de ces moments d'amitié vraie. Aux cartes comme dans tout son parcours de vie, Beñat aura aimé jouer, mais sans jamais tricher.

On ne lui connaît pas d'ennemis.

Il faisait partie de ceux et celles dont on couchait le nom parmi les premiers sur la liste d'une équipe municipale. Sa loyauté nous était acquise une fois pour toutes. Sa puissance de travail faisait le reste.

Beñat était un homme pragmatique. Il cherchait des solutions où d'autres se complaîtraient plutôt à inventer des problèmes. Il était un élu de terrain et de proximité, moins de discours et d'idéologie.

Son départ nous touche avant tout comme celui d'un ami qui voulait du bien à ses concitoyens dont il partageait au quotidien le destin, les joies comme les tristesses. Sa forme de sagesse devant les difficultés de la vie nous manquera, son bon sens et sa pondération toute camboarde aussi.

Christian Devèze
Maire de Cambo



Rendez-vous AU JARDIN

Les 5 et 6 juin dernier, la **15ème édition de "Rendez-vous au jardin"** à Cambo, a réuni 40 exposants sur le thème du jardin.

Des fleurs, des plantes, des articles de jardin, des conseils et du soleil pour les quelque 4000 visiteurs sur le week-end.



HITZORDUA BARATZEAN)

Ekainaren 5ean eta 6an, Rendez-vous au jardin (Hitzordua baratzean) gertakariaren 10. edizioa antolatu zen. X erakusketa bildu ziren

baratzearen gaiaren inguruan. Asteburu harten, loreak, landareak, salgaiak, aholkuak, eguzkia eta 4.000 bisitari izan ziren.

FÊTE DE LA MUSIQUE



La Halle Bernadette Jougleux a accueilli les musiciens pour la fête de la musique le lundi 21 juin.

Ce sont enchainés, **le groupe Olako de luxe, l'ensemble Latsarria et l'Harmonie de Cambo** tout cela devant un joli parterre de spectateurs

L'ambiance était chaleureuse.



Iragan Ekainaren 21ean, astelehenez, Bernadette Jougleux gelan musikariak arizan dira.

Bat bestearen ondotik arizan dira, Olako taldea, Latsarria eta Kanboko Harmonia, publiko nasai baten aitzinean.

Giro alaia zen.



Les grands équilibres du budget 2021

L'excédent de fonctionnement 2020 de 566 283,85€ et **l'excédent d'investissement** 2020 de 824 566,39€ sont affectés au fonctionnement 2021 pour 200 000,00€ et aux investissements 2021 pour 1 190 850,24€.

L'encours de la dette et l'annuité sont inférieurs à ceux des villes de la même strate démographique. La capacité de désendettement qui mesure le nombre d'années pour rembourser l'encours de la dette avec l'épargne brute était de 1,55 année en 2019 soit moins de la moitié de la strate nationale (3,89) et inférieure au tiers de la strate départementale (5,76). Pour 2020, ce ratio de 1,55 diminue encore pour atteindre 1,45 année.

En 2020, les dépenses d'équipement brut ont connu une forte diminution avec 1 112K€ contre 3 021K€ en 2019, la pandémie du coronavirus ayant obligé le

report de travaux. En comparaison, la moyenne des investissements réalisés sur la période 2015 à 2019 se situe autour de 2,5M€.

Le contexte général du budget 2021 couple l'entrée en vigueur de la réforme fiscale à un niveau élevé d'incertitudes macro-économiques, dans un fonds de perte de ressources.

Les orientations générales du budget 2021 intègrent les tendances politiques suivantes:

- maintenir les taux de fiscalité de la commune à leur niveau de 2020,

- contenir l'évolution des dépenses liées au fonctionnement compte tenu de la situation sanitaire,
- affecter une partie significative de la marge dégagée en fonctionnement afin d'assurer un autofinancement conséquent pour doper les investissements,
- définir une politique volontariste de maîtrise foncière et décliner un programme d'actions adaptée.

2021-EKO EZAGUARRI NAGUSIAK

2020ko funtzionamendu soberakina (566.283,85 €) eta 2020ko inbestimendu soberakina (824.566,39 €) esleitu dira 2021eko funtzionamendu-aurrekontura (200.000 €) eta 2021eko inbestimenduetara (1.190.850,24 €).

Mementoko zorra eta urteko kuota apalagoak dira maila demografiko bereko hirienak baino.

Aurrezki gordinarekin mementoko zorra ordaintzeko urte kopurua neuritzan duen zorgabetzeko gaitasuna 1,55 urtekoa zen 2019an; hots, estatuko mailarena baino apalagoa –erdia baino gutiago: 3,89– eta departamenduko mailarena baino apalagoa –herena baino gutiago 5,76–. 2020an, 1,55eko ratio hori are gehiago murriztu da, hots, 1,45 urterat.

Ekipamendu gordinaren gastuak azkarki jautsi dira 2020an: 1.112.000 ; 2019an, 3.021.000 €-koak ziren. Izan ere, koronabirusaren pandemiak obrak gibelatzera behartu du. Konparantzaz, 2015etik 2019ra artean egin inbestimenduen bana bestekoa 2.500.000 € ingurukoa zen.

2021eko aurrekontuaren testuinguru orokorra honakoa da: zerga-erreforma indarrean sartza, ziurgabetasun makroekonomiko handia eta baliabideen galtzea.

2021eko aurrekontuaren orientazio orokorreko joera politiko hauek biltzen dituzte:

- herriko zerga tasak mantentzea 2020ko hein berean;
- funtzionamenduarekin zerikusia duten gastuen bilakaera neurtea, osasun-egoera berezia kontuan hartuz;
- funtzionamendu-aurrekontuko irabaziengatik zati handi bat esleitzea, autofinanzaketa handia bermatzeko, eta, ondorioz, inbestimendua sustatzeko;
- lurra behar bezala baliatzeko politika boluntarista zehaztea, eta, ondorioz, ekintza-programa egoki bat plantan ezartzea.

INBESTIMENDU-AURREKONTUA 4 497 322 €

INBESTIMENDU-GASTUAK 4 338 304 €

Ekipamendu-gastuak 3 980 000 € 88,50 %

Eragiketa nagusiak hauak dira: bi tenis zelai estali (900.000 €), bide obrak eta hiri altzariak (603.000 €), sareen lurperatzea (171.000 €), herriko argiak (80.000 €), Gurutze Gorriaren eraikina eta aparkalekuak (278.000 €), heltze edo sartze erraztasunerako obrak (203.000 €), Arnagako segurtasun eta freskaldi obrak (337.000 €), bideozaintza (218.000 €) eta abar.

Maileguen itzultzea 231 000 € 5,15 %

2021/01/01ean zor den hondar-kapitala: 1.832.000 €

Ekipamendu planak, halaber, hartzen ditu eskoletako, kirol eta kultura egituretako eta herriko bestelako eraikin batzuetako obra eragiketak. Zerbitzuen beharrak honako hauak dira: zerbitzuetarako eta bide obretarako ibilgailuak eta pala mekanikoa, zerbitzuetarako informatika, bideokonferentzia, materialak eta altzariak...

Bestelakoak 127 000 € 2,82 %

INBESTIMENDU-SARTZEAK 4 098 322 €

Autofinanzamendua 1 391 000 € 30,93 %

N-1 urtean gibelatu inbestimenduaren kitatzekoak 825.000 € -koa da, 2021eko funtzionamendu atalak 200.000 € ekartzen ditu eta kapitalizatu funtzionamendu soberakinak 366.000 €.

Orotariko diru sartzeak 486 000 € 10,81 %

210.000 €-ko lursail baten saltzea, 200.000 €-ko BEZaren konpentsazio-funtsa, 76.000 €-ko antolamendu-zerga.

Dirulaguntzak 951 000 € 21,14 %

Mailegu 1 270 000 € 28,24 %

Maileguaz baliatzeak aukera ematen du atal hau orekatzen, autofinanzamenduaren osagarri gisa.

Aurkezpen horrek eragiketa adierazgarriak baizik ez ditu aipatzen, eta kontabilitateko eragiketak kanpoan uzten ditu.

FUNTZIONAMENDU-AURREKONTUA 6 271 104 €

FUNTZIONAMENDU-SARTZEAK Zergak 3 717 000 € 59,28 %

Zergei dagozkien irabaziak: 3.720.000 €, haietan etxe-zergak 2.150.000 € Bizitegi zerga ez du gehiago herriak biltzen; estatuak konpentsatzen du. Egonaldi zergaren emaitza murriztu da, osasun krisiak turismoan duen eragina kontuan hartzen (- 85.000 €, 2019ren aldean).

Zerbitzuen irabaziak 469 000 € 7,48 %

Zerbitzuen irabaziak (erabiltaileek ordaindu zerbitzu zergak): 469.000 €; haietan 310.000 € kultura zerbitzuetarako eta 90.000 € aisiaaldi zentrorako; hots aitzineko urteetan baino gutiago.

Zuzkidurak eta partaidetzak 1 509 000 € 24,07 %

haietan DGF edo funtzionamendu-zuzkidura orokorra: 993.768 € ; hots, % 7 gutiago (- 75.000 €) 5 urtez (2016an: 1.068.771 €) haietan Landa-elkartasuneko zuzkidura 349.000 € ; hots, % 15 gutiago (- 61.000 €) 5 urtez (2016an: 410.971 €)

Bestelako kudeaketa irabaziak 255 000 € 4,07 %

FUNTZIONAMENDU-GASTUAK

Langile-karguak 2 859 000 € 45,59 %

Gastu horien emendatzea mugatu behar da, herriko finantzak neurtzeko.

Bestelako kudeaketa gastuak 736 000 € 11,74 %

haietan, besteak beste, 458.564 €ko dirulaguntzak elkarteei (GEHZ 160.000 € Turismo Bulegoa 200.000 € besteak 98.564 €, 120.100 €ko herriaren ordainketa eskola pribatuei, hautetsien ordainsariak, erakunde anitzi ordaindu parte hartzeak...)

Gastu orokorrak 1 933 000 € 30,83 %

Gastu orokorrak honakoak dira: jariakinak (391.000 € hornigaien eta salgaien erostea (319.000 € zerbitzuak (96.000 € konpontze eta mantenu lanak (331.000 € aisiaaldi zentroa (220.000 € asurantzak, alokairuak, zergak...

Finantza gastuak 17 000 € 0,28 %

Mailegu-interesak: 17.508 €

Aurkezpen horrek eragiketa adierazgarriak baizik ez ditu aipatzen, eta kontabilitateko eragiketak kanpoan uzten ditu.

LE BUDGET DE FONCTIONNEMENT 6 271 104 €

RECETTES DE FONCTIONNEMENT

Impôts et Taxes : 3 717K€ / 59,28 %

- Les produits des impôts et taxes : 3,72M€ dont fiscalité impôts ménages 2,15M€
- La taxe d'habitation n'est plus perçue par la commune mais compensée par l'état.
- Le produit de la taxe de séjour a été réduit pour prendre en compte l'impact de la crise sanitaire sur le tourisme (- 85 000 /2019).

Produit des services : 469K€ / 7,48 %

- Les produits des services (redevances payées par les usagers) : 469K€ dont 310K€ pour les services culturels et 90K€ pour l'ALSH, en diminution par rapport aux années antérieures.

Dotations Participations : 1 509K€ / 24,07 %

dont DGF (dotation globale de fonctionnement) 993 768€ soit -7% (-75 000) en 5 ans (2016 : 1 068 771)
dont Dotation de solidarité rurale 349 000€, soit -15% (-61 000) en 5 ans (2016 : 410 971)

Autres Produits de Gestion : 255K€ / 4,07 %

DÉPENSES DE FONCTIONNEMENT

Charges de personnel : 2 859K€ / 45,59 %

- La progression de ce poste de dépenses doit être contenue pour le respect des finances de la commune.

Autres Charges de Gestion : 736K€ / 11,74 %



- dont notamment 458 564€ de subventions aux associations (CCAS 160 000€, Office du tourisme 200 000€, autres 98 564€), 120 100€ de forfait communal pour les écoles privées, indemnités aux élus, participations versées à différents organismes...)

Charges Générales : 1 993K€ / 30,83 %

- Ces charges concernent les fluides 391K€, achats de fournitures et marchandises 319K€, prestations de services 96 K€, entretien et maintenance 331K€, ALSH 220K€, les assurances, locations, impôts...)

Charges financières : 17K€ / 0,28 %

Les intérêts d'emprunt s'établissent à 17 508€



Cette présentation ne vise que les opérations significatives et exclue les opérations d'ordre comptable.

LE BUDGET D'INVESTISSEMENT 4 497 322 €

DÉPENSES D'INVESTISSEMENT

Les dépenses d'équipement :

3 980K€ / 88,50 %

- Les principales opérations concernent la création de deux courts de tennis couvert 900K€,
- La voirie 603K€ et le mobilier urbain
- L'enfouissement de réseaux 171K€, l'éclairage public 80K€, le bâtiment Croix Rouge et le parking 278K€, les travaux d'accessibilité 203K€, les travaux de mise en sécurité et de ravalement à Arnaga 337K€, la vidéo protection 218K€

Le plan d'équipement vise également les opérations de travaux dans les écoles, les structures sportives et culturelles et les autres bâtiments communaux. Les besoins des services sont programmés : véhicules et tractopelle pour les services et la voirie, informatique et visioconférence, matériels et mobilier pour les différents services.

Le remboursement des emprunts 231K€ / 5,15 %

Le capital restant dû au 01/01/2021 est de 1 832K€

Divers 127K€ / 2,82 %

RECETTES D'INVESTISSEMENT

L'autofinancement : 1 391K€ / 30,93 %

- Le solde d'exécution N-1 d'investissement reporté est de 825K€, la section de fonctionnement 2021 procure 200K€ et l'excédent de fonctionnement capitalisé 366K€

Les recettes diverses :



486K€ / 10,81 %

- Constituées par la cession d'un terrain 210K€ le fonds de compensation de la TVA 200 K€, la taxe d'aménagement 76K€

Les subventions 951K€ / 21,14 %

L'emprunt : 1 270K / 28,24 %

- Le recours à l'emprunt permet d'équilibrer la section en complément de l'autofinancement.



LES MOBILITES DOUCES POUR AMBITION

La mobilité, pour qu'elle soit durable, doit prendre en compte de multiples enjeux : **des enjeux climatiques, de qualité de l'air, de santé, des enjeux énergétiques, des enjeux sociaux ou encore d'attractivité du territoire.**



LES ENJEUX SOCIAUX

La multiplication des échanges implique des modes de vie mobiles. L'emploi est fortement lié à la mobilité et au territoire accessible. Dans une société qui valorise la vitesse, la mobilité devient discriminatoire. La possession d'un degré de mobilité supérieur à la moyenne est alors un avantage et le contraire, un handicap qui peut conduire à l'exclusion sur le marché du travail.

LES ENJEUX ÉCONOMIQUES

Si en moyenne les ménages dépensent 5 000 € par an pour leur mobilité, un cinquième d'entre eux consacre plus de 18% de leurs revenus à leur mobilité quotidienne. Ceci les met en situation de précarité énergétique.

LES ENJEUX ENVIRONNEMENTAUX


La mobilité de personnes est à l'origine d'émissions de gaz à effet de serre et de polluants locaux qui dégradent la qualité de l'air, des eaux et des sols.

Les transports représentent un quart des émissions de gaz à effet de serre. C'est le secteur le plus impactant, devant l'agriculture et le résidentiel-tertiaire.


La voiture est responsable de plus de 90 % des émissions issues de la mobilité locale, loin devant les autobus et le train. Source DREAL



La multimodalité désigne la présence de plusieurs modes de transport différents entre deux lieux.



Intermodalité on utilise ce terme pour envisager la combinaison de plusieurs modes de transport au cours d'un même déplacement.



Dans le domaine des Politiques de transports l'approche multimodale désigne de plus en plus souvent la volonté de développer des chaînes de transport alternatives à la route ou à l'utilisation de véhicules particuliers dont l'impact environnemental est considéré comme trop négatif.



KANBO: MUGIKORTASUN IRAUNKORRAK XEDETZAT



Mugikortasunak, jasangarria izan dadin, erronka anitz hartu behar ditu kontuan: klima, airearen kalitatea, osasuna, energiak, sozialak edo lurrardearen erakargarritasuna.

Biztanleria kontzentratzen den hirietan, aiseago da garraiobideak kanbiatzea.

Baserri eremuetan, herriean edo hiri ingurueta, mugikortasunen antolaketa bestelakoa da, eta kontuan hartu behar ditu zenbait zerbitzuren urruntasuna, autoaren menpekotasuna eta garraiobide kolektibo eta bertutetsuak garatzeko beharra.

Baina, hemen, garraiatzeko eta joan-etorriak egiteko ohidurak azkarki erroztaturik dira oraino.

Norberak bere autoa erabiltzea da nagusi. Gure praktikak aldatzeko garaia da! Kanbok zazpi eginahalak egiten ditu!

GIZARTE MAILAKO ERRONKAK

Jendeen arteko trukeen bideratzeak bizimodu mugikorrik izatea du ondorio. Enplegua hertsiki lotua zaio mugikortasunari eta lurraldean errazki ibili ahal izateari. Abiadura baloratzen duen gizarteak, mugikortasuna diskriminatzalea izan daiteke: bana bestekoa baino mugikortasun maila handiagoa izatea abantaila bat da; kontrakoa, aldiz, lan merkatuan bazterketa eragin dezakeen traba.

INGURUMEN MAILAKO ERRONKAK

Pertsonen mugikortasunak berotegi-efektuko gasak eta airearen, uren eta lurren kalitatea txartzen duten tokiko kutsatzaleak hedatzen ditu.

Garraioak berotegi-efektuko gasen emisioen laurdena dira. Sektorerik kutsatzaleena da, laborantzaren eta hirugarren sektorea eta bizitegien gainetik. Autoa tokiko mugikortasunetik jalgi emisioen % 90 baino gehiagoren erantzulea da, autobusak eta trenak baino anitezzez gehiago.

Iturria: DREAL

EKOLOGIA MAILAKO ERRONKAK

Bana beste, familiek urtean 5.000 euro gastatzen dituzte mugitzeko. Haietan bostenak diru sartzeen % 18 baino gehiago erabiltzen du eguneroko mugikortasuneko. Horrek egoera energetiko ezegonkorrean ezartzen ditu.

Garraio politiken arloan, ikuspegi multimodala izateak erran nahi du borondatza izatea gero eta maizago errepideaz edo ibilgailu partikularrak erabiltzeaz bestelako garraio kate alternatiboak garatzeko, uste baita errepide eta ibilgailu indibidualek ingurumenean eragin negatiboegia dutela.

Intermodalitatea: bidaia berean, garraiobide bat baino gehiagoren erabiltzea. etaeta

LES MOBILITES DOUCES POUR AMBITION

Déclinons maintenant les dispositifs en place pour votre mobilité durable : **le bus, le train, le covoiturage, le vélo et les véhicules électriques.**

LE BUS

En lien avec le Syndicat des Mobilités Pays Basque Adour, la commune de Cambo a instauré deux lignes de bus qui parcourent Cambo.


La ligne 57 entre Arnaga à Cambo-Les-bains et Behereko Plaza (Fronton du Bas-Cambo) dessert les gares routière et ferroviaire, le centre-ville, les établissements scolaires et les quartiers résidentiels.

La ligne 59 entre Pilota Plaza à Itxassou et Altzueta à Itxassou dessert les quartiers résidentiels, le centre-ville de Cambo-les-Bains et les établissements scolaires. Elle est en correspondance avec la ligne 57 à Pont des Thermes à Cambo-les Bains.



Retrouvez ces horaires sur notre site

www.cambolesbains.fr
ou sur
www.txiktxak.fr



LES TARIFS - PREZIOAK



TARIFS PROXI'BUS billettique manuelle (validation par le conducteur)

Prezioak: eskuzko txartel irakurgailuak (gidariak bali egiten du)

1 voyage Bidaia 1	1€
Journée Eguna	2€
10 voyages 10 bidaia	6€
Pass Thermal valable 20 jours - lignes 57 et 59 BainuetxeKO pass txartela, 20 egunez bali – 57. eta 59. ibilbideak	20€

ABONNEMENTS Abonamendua

Abonnement mensuel jeune (6-25 ans) Gazteen hilabeteko abonamendua (6 eta 25 urte artekoak)	20€
Abonnement mensuel Hilabeteko abonamendua	30€
Abonnement trimestriel jeune (6-25 ans) Gazteen hiru hilabeteko abonamendua (6 eta 25 urte artekoak)	40€
Abonnement trimestriel Hiru hilabeteko abonamendua	50€

OÙ EST MON BUS ? QUAND ARRIVE-T-IL ?

Il vous suffit de télécharger l'**application Zen Bus** sur votre téléphone.

- Vous obtenez en temps réel, votre position, sa position.
- **Vous le voyez se déplacer.**
- Vous savez dans combien de temps il vous prendra.



zenbus

AUTOBUSA

Orain, mugikortasun iraunkorreko garraiobideak aipatuko ditugu: autobusa, trena, auto partekatzea, bizikleta eta ibilgailu elektrikoak.

Ipar Euskal Herria - Aturri Mugikortasunen Sindikatuarekin batera, Kanboko Herriko Etxeak herritik pasatzen diren bi autobus ibilbide ezarri ditu.

Kanboko Arnaga eta Behereko Plazaren arteko 57. ibilbidea autobus geltokian, herri barnean, ikastetxeetan, kartierretan eta tren geltokian gelditzen da.

Itsasuko Pilota Plaza eta Altzuetaren arteko 59. ibilbidea Kanboko kartierretan, herri barnean eta ikastetxeetan gelditzen da. Bainuetxeen Zubian, 57. ibilbidearekin loturak bermatzen ditu.

Non da ene autobusa? Noiz helduko da?

-Aski da aplikazio hau telefonoan deskargatzea autobusa non den eta noiz helduko den jakiteko.

Denbora errealean, zure posizioa eta berea jakinarazten ditzu. **Mugitzen ikusten duzu.**

Eta, hola, badakizu zenbat denbora behar duen heltzeko.

UNE QUESTION, UN DOUTE ?
GALDERARIK? DUDARIK?

www.txiktxak.fr
txiktxak@communauté-pays basque.fr
Tél. 05 59 44 77 77



LES MOBILITES DOUCES POUR AMBITION

LE RÉSEAU TXIK-TXAK

Ces lignes sont accessibles depuis la gare routière de Cambo à proximité des cours de tennis.



LES CAR'EXPRESS (LIGNES 14,15) & HEGOBUS (LIGNE 49)



14

